

# BIDEOJOKOAK. Ba al dakigu zer dagoen jokoan?



**Bideojokoak joko elektronikoko elkarreragileak dira.**

**Musikarekin, liburuekin edo filmekin gertatzen den moduan, ADIN GUZTIETARAKO BIDEOJOKOAK daude, ASKOTARIKO EDUKIEKIN.**

**Bideojokoak tresna positibo eta hezitzaileak izan daitezke, betiere aukeraketa egokia egiten badugu eta honako hau kontuan hartzen badugu:**

## ◆ Bideojokoek balioak transmititzen dituzte.



Hori dela-eta, arretaz jardun behar dugu eta gure seme-alaben heziketarako nahi ditugun balioak biltzen dituzten bideojokoekin jolastea sustatu behar dugu, aldiz, giza eskubideen aurkako balioak (sexismoa, diskriminazioa edo indarkeria) goratzen dituztenak saihestuz.

## ◆ Bideojokoek trebetasunak garatzen dituzte.

- Konstantzia sustatzen dute eta porrotarekiko tolerantzia areagotu.
- Begi eta esku koordinazioa hobetzen laguntzen dute.
- Oroimena, zenbaki-kontzeptuak atxikitzeko gaitasuna eta pertzepzio bisuala estimulatzen dituzte.
- Alfabetatze digitala sustatzen dute.



## ◆ Bideojokoak gehiegi erabiltzeak bakartzea eta adikzioa sortzea eragin ditzake.

Sintomek, besteak beste, honako hauek hartzen dituzte barnean: jarduera uzteko ezintasuna, familia eta lagunei engainatzea, ikasketekin arazoak, eskumuturreko minak, begi lehorrak, higiene pertsonalaren ardurarik eza eta lo-arazoak.



## PEGI KODEA (BIDEOJOKOEN ETIKETA)

**EDUKIAK SAILKATZEKO EUROPAR SISTEMAK**, marrazkien bitartez informazio interesgarria ematen digu, jokoaren edukiak adin-tarte jakin batzuentzat egokiak diren jakiteko. Informazioa eta piktogramak argi agertuko dira bideojokoaren karatulan.

### ADINEI BURUZKO GOMENDIOAK

**3**  
www.pegi.info

HIRU URTETIK  
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

**7**  
www.pegi.info

ZAZPI URTETIK  
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

**12**  
www.pegi.info

HAMABI URTETIK  
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

**16**  
www.pegi.info

HAMASEI URTETIK  
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

**18**  
www.pegi.info

HAMAZORTZI URTETIK  
GORAKOENTZAT GOMENDATUA

### EDUKIEI BURUZKO ERREFERENTZIAK



#### HIZKERA ITSUSIA

Jokoak biraoak dauzka



#### DISKRIMINAZIOA

Diskriminazioa bultza dezaketen irudiak edo materialak dauzka



#### DROGAK

Drogen erabilera aipatu edo erakusten du



#### BELDURRA

Haurrak izutu edo ikaraz ditzake



#### SEXUA

Gorputz biluziak, sexu portaerak edota sexu-aipamenak ageri dira



#### INDARKERIA

Irudi bortitzak erakusten ditu



#### JOKOAK

Jokoa eta apustuak sustatzen ditu edo jokatzeko irakasten du



#### LINEAN

Linean joko daiteke

## GOGOAN IZAN

### Erosteko unean:

- ◆ Irakurri etiketa eta egiaztatu bideojokoak eskatzen dituen ezaugarriak, sustatzen dituen balioak eta PEGI kodeak gomendatzen duen adina.
- ◆ Baimendutako establezimendu batean erosi bideojokoa; horrela kontsumitzaile gisa dituzun eskubideei eutsiko diezu.

### Jolasterakoan:

- ◆ Bideo-kontsolak eta ordenagailuak leku komunetan kokatu eta taldean jokatzea sustatu, bakartzea saihestarren.
- ◆ Mugatu jolas-denbora eta eman lehentasuna betebeharrei. Eskaini adingabeei bideojokoaren erabilera osasungarria garatzeko jarraibideak.

## Informazio gehiagorako:

[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

Kontsumoko Euskal Institutua.

[www.pegi.info/es/](http://www.pegi.info/es/)

Adinaren arabera bideojokoaren sailkapen sistema.